



ANDRAMAIXETAKO FILM LABURREN OINARRIAK 2019

Gaia: Beldurra.

Lanen iraupena: Gehienez 12 minutukoak izan beharko dute eta formatu digitalean eginda egon beharko dute: DVD, CD edo edozein ordenagailu arruntek irakurriko duen formatuan. 12 minututik gorako lanak, lehiaketatik kanpo geratuko dira.

Hizkuntza: euskara.

Lehiaketan 16 urtetik gorakoek har dezake parte.

Lanak, originalak eta inon saritu gabekoak izan beharko dute.

Izen emateko epea: ekainaren 17tik uztailaren 5era egongo da zabalik. Lanak aurkezteko azken eguna: abuztuak 7.

Lanak aurkezteko tokia: Azkoitiko Udaletxeko kultura saila.

Sariak: 1. saria: 250 euro eta oroigarria / Ikuslearen saria: 150 euro eta oroigarria. *Oharra: Lehenengo saria lortzen duenak, ezingo du ikuslearen saria jaso.*

Izen ematearen ondoren, lan asko aurkeztuz gero, parte hartzaileekin bilera bat antolatuko da zer neurri hartu erabakitzeko.

Lau film labur baino gutxiago aurkezten badira, ez da lehiaketarik izango. Gutxieneko kalitatea bermatzen duten lan guztiek 125 euroko dieta izango dute.

Gizonezko eta emakumezkoen arteko berdintasuna eta herritarren aniztasuna errespetatzen ez dituzten lanak ez dira onartuko.

Laburmetrai proiektzioa, abuztuaren 15ean, gaueko 22:30ean herriko plazan egingo da. Lehenengo saria epaimahaiak erabakiko du eta bigarrena, herritarrek.